


# Noaia!!

www.noaia.com



Euriteak kalte ugari  
eragin zituen



Larunbat honetan, Agerialden

Udarregi Sariketaren final handia





Sarrereren salmenta



SERVIKLITXA  
943 00 12 00  
www.kutxa.net



## Andoain AZAROKO AGENDA

• **Azaroak 13** igandea, 17:00h Auditorioan  
"Hipo ta Tomax"

• **Azaroak 18** ostirala, 22:00h Auditorioan  
"Zarzuela gaua"

• **Azaroak 19** larunbata, 20:00h Ekitaldi aretoan  
Iñaki Salvador eta Ainara Ortega "Kantagin jazz"

• **Azaroak 20** igandea, 19:30h Auditorioan  
Argia Dantza Taldea "Axuri Beltza"

• **Azaroak 25** ostirala, 20:30h Auditorioan  
"Andoain Musika Eskolako bandaren kontzertua"

• **Azaroak 26** larunbata, 20:00h Ekitaldi aretoan  
"Garikoitz Mendizabal eta Xabier Zabala"



AXURI BELTZA  
DANTZA TALDEA



ANDOAINO UDALA

Gipuzkoako Foru Alduztea

Informazio gehiago: 943.303.540 [www.andoain.org](http://www.andoain.org)

# LASER DIODO IRAUNKORRA LIGHTSHEER® DIODO LASERRAKIN

Depilatzeaz nazkatuta baldin bazaude, depilazio iraunkorra lortzeko aukera paregabea eskeintzen dizugu:

Bai GIZON eta EMAKUME tratamenduetan

# %50

Promozioa abenduak 31 arte.

INFORMA ZAITEZI!



Nagusia 8. USURBIL 943 36 36 41 (egun guztia irekia)

Kalitatezko produktuekin estilismoa eta estetika lantzen ditugu



Albistea iruditan !!

## Aspaldiko hauteskunde kanpainarik hotzena

Azaroaren 20ko Madrilgo Diputatuen Kongresu eta Senaturako hauteskunde kanpaina azken txanpan sartzeaz da. Orain artean hitzordu bakarra zegoen deitua Usurbilen, Amaiur koalizioak eginikoa. Joan den iganderako udalerriko hiru zubiak ibilaldi baten bidez lotuko zituen "Zubirik zubi" ekimena antolatu zuen, baina uholdeen eraginez bertan behera geratu zen. Halere, Ezker Abertzalea, EA, Alternatiba eta Aralar biltzen dituen koalizioak deialdi berria egin du larunbaterako. Txokoalde, Zubieta eta Santueneako zubietan argazkiak ateratzeko hitzordua finkatu dute, 12:30ean. 17:00etan ekitaldi nazionala deitu dute Anoetako Belodromoan. Azkenik, iganderako, ekitaldia 12:30ean Sutegin, Madrilgo Parlamenturako hautagai



OSO APAL ARI DA IGAROTZEN HAUTESKUNDE KANPAINA.

Xabier Mikel Errekondo eta Senaturako hautagai Maite Sarasua hizlari dituztela. 14:00etan herri bazkaria ospatuko da Askatasuna plazan, eguraldi txarrarekin Udarregi ikastolako jangelan.

Txartelak salgai dira 15 eurotan

Txiribogan eta Bordatxon. Ikasle eta langabetuek 10 eurotan eskuratu ahal izango dituzte.

Hauek dira momentuz, Usurbilen deituak dauden hauteskunde kanpainako ekitaldi bakarrak.

## Telefono interesgarriak

Udala	943 371 951	Sutegi Udal Liburutegia	943 360 692	DYA	943 464 622
Atez ateko bulegoa	900 776 776	Zumarte Musika Eskola	943 371 594	Gurutze Gorria	943 272 222
Udaltzaingoa	943 361 112	Etumeta AEK Euskaltegia	943 372 001	Emergentziak	112
Udal zerbitzuak (Brigada)	943 370 148	Kalezar Egunekeo Zentroa	943 365 249	Gonzalez Ehorztetxea	943 362 163
Gizarte Zerbitzuak	943 377 110	Gure Pakea Zahar Egoitza	943 368 770	Gipuzkoa Donostia Kutxa	943 361 202
Diputazioa - Basetxea	943 361 215	Gure Elkartea Zahar Egoitza	943 371 751	Euskadiko Kutxa-Laborala	943 364 740
Bake Epaitegia	943 372 336	Arrate Zahar Egoitza	943 366 340	Banco Guipuzcoano	943 370 006
Udarregi Ikastola	943 361 216	Taxia (Angel)	607 928 770	Banco Popular Español	943 370 411
Haur Eskola	943 374 061	Taxia (Joxe Kruz)	677 373 466	BBVA	943 377 155
Zubietako Lanbide Eskola	943 364 600	Eusko Tren	943 470 976	Caja Rural Kutxa	943 368 842
Zubietako Herri Batzarra	943 372 077	Korreos - posta zerbitzua	943 362 894	Argindarra - Iberdrola	901 202 020
Hastapen tailerrak	943 360 465	Anbulategia	943 362 013	Gas naturala - Naturgas	902 123 456
KZgunea	943 570 999	Oa botika	943 376 076	Telefonica	1004
Oiardo Kiroldegia	943 372 498	Iturralde botika	943 363 395	Euskaltel	900 840 840

### Noaua!

NOAUA! Kultur Elkartea Bordaberri 3 Eguzkitzaldea - 20.170 Usurbil 943 36 03 21 / [elkartea@noaua.com](mailto:elkartea@noaua.com) / [www.noaua.com](http://www.noaua.com)

Jendaurreko ordutegia: 10.00-14.00 / 16.00-19.00 astegunetan

Elkarteko lehendakaria: Ana Aizpurua. Aldizkariko koordinatzailea: Imanol Ubeda. Idazkaria: Aizpea Aizpurua. Publizitatea: Bea Alda, [publizitatea@noaua.com](mailto:publizitatea@noaua.com).

Erredakzio kontseilua, [erredakzioa@noaua.com](mailto:erredakzioa@noaua.com): Imanol Ubeda, Aritz Gorriti, Aizpea Aizpurua. Banaketa: Lourdes Kamino, Olatz Rezola, Ainara Arnaiz.

Laguntzaileak: Lontxo Zubiria, Maria Angeles Arruti, Ainara Arnaiz, Unai Aizpurua, Maria Jesus Urbietta, Maddi Galbete, Ana Urdangarin, Eneko Harreguy, Maddi Zaldua, Irati Portu, Iñaki Larrañaga, Pako Agudo, Jon Etxabe, Nerea Aizpurua, Alazne Begiristain, Denis Elortza, Pello Aranburu, Xabier Aranburu, Maider Makazaga, Inma Balda, Luis Aranalde, Nerea Zinkunegi, Maialen Unanue, Ugaitz Agirre, Joxe Piñas, Unai Agirre, Idoia Torregerai eta Udarregi ikastola.

Tirada: 2.800 ale. Lege-Gordailua: SS-668-96 - ISSN: 1136-6818. Inprimategia: Antza. Zirkuitu Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.




Usurbilgo Udala



Euskal presoak



Euskal Herrira!



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza



IMANOL UBEDA

## Hitzaren garaian

Zuen baimenarekin, udara begira jarriko naiz berriz ere. Azkar pasatzen dira egunak, azkar pasatzen dira gertaerak eta, informazio gaindosiaren aurrean, ahaztu ere azkar asko ahaztu ohi ditugu gauzak. Donostiako Aste Nagusiaren bueltan, argazki batek saltsa handia eragin zuen. Irudiaren ezkerretara, Donostiako PP alderdiko bi zinegotzi. Eskubitara, alkatea, Bildukoa. Hirurek sagardo baso bana dute eskuan. Topa egiten ari dira. Jaien aitzakian edo egina, irribarrez ageri dira hirurak.

Zalaparta ez zen nolana hikoia izan. Espainiako hedabide askotan, suminduen oldarraldia berehalakoa izan zen. Kontua baretu ez eta areagotzen hasi zenean, Antonio Basagoiti PPko buruak hedabideen aurrean azaldu behar izan zuen. "Instituzioetan, irmotasun osoa". Terrorismoa gaitzetsi eta eragindako kaltea onartu bitartean, Bildukoei "ni agua", hitz horiekin esan zuen. Ditosozko argazkia ez zitzaiola batere gustatu. Donostiako zinegotzietatik hanka sartu zutela azpimarratu zuen baina aringarri moduan edo, zinegotzi horiek ez direla susmagarri esan zuen.

Gauzak nola diren. Bi hilabeteren epean, Donostiako PPK eta Bilduk bat egin dute autobus geltokia Loiolako

Erriberan eraikitzeko. Eta ez du abuztuko argazkiak eragin zuen zalapartaren laurdena ere ekarri. Eta ez pentsa zalaparta bila nabilenik. Alderantziz. Pozgarria dela uste dut.

Izan ere, hitzaren garaia hasi den honetan, horrelako asko etorriko dira. Eguneroko martxan, erabaki asko hartu behar dira. Eta instituzioetan bereziki, batzuk eta besteak ados jarri beharko dira kontu askotan. Beste batzuetan ez. Hori ere hala izango da. Baina krisi garai hauetan, elkar asmatzera kondenatuta daude. Eta adibide moduan har daiteke Donostiako autobus geltokiaren inguruko bat-egite hori.

Gatazkaren aitzakian gizendu diren horiei bazka amaitu zaie, ordea. Eta urteotan elikatu dituzten "bozgorailu" batzuekin, orain, lan handiak izango dituzte popularrek. Garai berri hau hasi besterik ez da egin. Eta esaten duten moduan, atzera biderik ez badu, Kantauri aldera bideratuta zegoen jazarpen mediatiko hori popularren aurka joan daiteke. Iragarpenak betetzen badira behintzat, ez da Espainiako Gobernua ondo kudeatu beharko duten gune bakarra izango. Euren artaldea gobernatzen ere lan handiak izango dituztela popularrek. Hitzaren garaian, otsoaren ulua gailendu ez dadin...

Imanol Ubeda - Maialen Unanue - Luis Aranalde - Ugaitz Agirre - Aritz Gorriti - Nerea Zinkunegi - Joxe Piñas - Unai Agirre - Idoia Torregarai

Ika-mika !!

## Noizko tratu txar psikologikoen aurkako protokoloa?

Joan den astean oso esperientzia traumatikoa eta umiliagarria bizitza egokitu zitzaidan. Beno, beste bat gehiago, erasotzaile psikologiko baten jazarpen sistematikoari esker bizitza bizi ordeztu biziarekin bihurtu den honetan. Defentsarik ez duzun beste egoera horietako bat gehiago, saihestu ezin dena, inork ulertzen ez duena eta epaitua sentiarazten zaituena motibo eta arrazoirik gabe, gure sistema judicial "maitatuari" eta baita definizioz, psikopata "makiabeliko" bati esker ere. Soilik kaltetunak ulertzen du egoera eta erabateko bakardadeak, amorruak, babes gabetasunak... estutzen zaitu.

Tratu txar psikologikoei buruz hitz egiten ari gara. Ez dirudi gertakari odol-dun penagarri horiek bezain gai larria, nabarmena, kazetaritza ikuspuntutik erakargarria. Hemen bakarrik, bizitza sotil batean lurperatzen joaten zaizun

tanta txinatar bat duzu.

Zure desgaziarako, psikopatia, "gaitortasun moral larri" bezala definitua (gaixo hauek ez dute euren gaitasun kognitiborik galtzen, alderantziz, indartuak dituztela dirudi), duen baten batekin topo egiten baduzu, eurek euren onurarako, gogobetetzera eta gorazarre egiteko sorturiko bizitzako egoerarik paradoxikoenetan aurki zaitezke.

Lehen aipatu moduan, tratu txar fisikoekin alderatuta kasu honetan egoera okertzen duena, inongo defentsarik ez duzula da, pertsona "normala" den inork ez baitu ulertzen, ez da ulertzera ailegatzen, pertsona hauek antolatzen dituzten jokaldi "makiabeliko" horiek. Dena hain da normala eta zuzena euren gan... Modu honetan, bizitza sentitzeko gaitasunik gabe bizitzen da, bere kasuan bezala, gutxieneko giza moralitasun batekin kanpo bizitzen denean. Ez epaite-

giek, ezta "ordenaren defendatzaileek", ez lagun ezta ezagunek ere... Eurek egindako zerbaitek ziprizzintzen ez dituzten arte. Askotan, kaltetuarentzat beranduegi da, ahitze mentala erabatekoa baita.

Profesional gisa gai honetan sakondu nahi baduzu, norbaiten biktima zarela pentsatzen baduzu, gai honengatik zerbaite egin nahi baduzu, idatzi edo deitu diezaguzu. Aldez aurreko esperientzian oinarrituta, ezezaguna den lakra sozial honen dibulgazioarekin soilik bizitza asko aldatzen lagunduko duela konbentzitu nago.

ABISO. GEHIAGO GARA. Justizia, Kultura eta Ongizatea denontzat. Eta bakarrik ez geratu!

686 554 145.

abisosomas@gmail.com

Ana I. Flores Rolin.

## Zortzi langile kontratatzeke udal deialdia

**A**bendutik aurrera zortzi langile kontratatzeke asmoa du Usurbilgo Udalak, egun osoz eta hurrengo sei hilabeteko epealdira. Usurbil.net udal web orrialdetik berri eman dutenez, "interes orokorreko eta gizarte-onurakoak diren jarduerak gauzatzeko". Azaroaren 14an astelehena izango da izena emateko azken eguna (egun hori barne).

Lanbideak diruz lagundu ditu kontratazio hauek eta langabeziagatikotiaziopeko prestaziorik jasotzen ez duen edota diru-sarrerak bermatzeko errenta jasotzen duen langabetuei zuzenduak daude. Hona hemen, Usurbilgo Udalak bete nahi dituen lanpostuak:

- Natur ondarearen kudeaketa: mendi bide eta erreken garbiketa. 2 lorazain laguntzaile eta lorazain enkargatu bat, 5 hilabetez.

- Konpostaje komunitarioaren azterketa eta ikuskaritza. Ingurugiro hezitzaile bat, 6 hilabetez.



AZAROAREN 14AN ASTELEHENA (HORI BARNE) AMAITUKO DA LANBIDEN IZENA EMATEKO EPEA.

le bat, 6 hilabetez.

- Urbilen, kultura, turismo eta herri merkataritzaren erakuslelhoia. Teknikari bat, 6 hilabetez.

- Pinturako mantenimendu lanak. 2 pintore laguntzaile, 3 hilabetez.

- Pabimentuen eta hiri altzairuen inbentarioa. Teknikari bat, 3 hilabetez.

Informazio gehiago: Udaletxean bertan edo usurbil.net web orrialdean.

## Sukaldaritza ikastaroa antolatu du Guraso Eskolak

**I**kastaro berri bat antolatu du Guraso Eskolak, datorren asterako, "berezi, etxeko sukaldean hasi berriak direnentzat edota ustez beti berdina prestatzen dutenentzat. Batez ere, lehen eta bigarren platerak prestatzeko": Hasiera batean, hiru saio izango dira, azaroaren 15etik 17ra, baina antolakuntzatik ohartarazi dutenez, osatzen den taldeak nahiko balu, ikastaroa luzatzeko aukera legoke. Saioak Agerialden burutuko dira, aipatu moduan, datorren asteartetik ostegunera, 19:00-20:15 artean. Igor Gorriti sukaldari usurbildarra arituko da irakasle lanetan. Izen emate



IZEN-EMATEA ZABALIK AZAROAREN 14RA ARTE.

tea zabalik egongo da azaroaren 14ra arte, 670 410 273 telefono zenbakian edo sutxikian@gmail.com helbidean. Ikastaroaren prezioa, 22 eurokoa da.

## Kalejira eta kontzertua Santa Zeziliren omenez

**A**zaroaren 22an ospatu ohi da Santa Zezili, musikariaren eguna. Urtero moduan, bezperatan Zumarte Musika Eskolakoek kalejira eta kontzertua burutuko dituzte. Datorren ostegunean, hilaren 17an izango da.

**18:00 "Musikalean" kalejira.** Txarangak eta Trikitixa-pandero taldeak Musikalean kalejira egingo dute. Euskal Herriko musika eskola guztiak bateraturik egingo den kalejira izango da.

**19:00etan Kontzertua Sutegi Kultur Etxeko auditorioan.** Musika Eskolako talde instrumental desberdinek kontzertua eskainiko dute. Sarrera, doan.

Antolatzailea: Zumarte.

**Usurbildarrak pozik Tolosan** Sariak oso garesti zeuden aurten, baina Landarbaso Abesbatzak polifonia sailan hirugarren saria irabazi zuen Tolosako Abesbatza Lehiaketan. Argazkian dira abesbatza parte hartu zuten usurbildarrak, saria eskuetan dutela. Zorionak!



ALAZNE BEGIRISTAIN ETA IKER MUGURUZA ERE ARITU ZIREN, TXALAPARTA JOTZEN.

**TAXI 24h**  
Jose Etxabe USURBIL  
677 37 34 66  
943 36 21 78

**ALDAMU**  
KONPONKETAK  
KALE NAQUISIA 10- atzekoaldea  
943 372 795

**txirriStra**  
TABERNA  
-Plater konbinatuak  
-Ogitartekoak  
-Pintxoak  
Kontseju zaharra, 13 Tel 943 36 04 66

## SANTUENEA

IÑAKI LARRAÑAGA

## Euriarekin ametsetan!



**D**uela hiru egun ez nekiela zertaz idatzi komentatzen nion emazteari, eta orain berriz, folio txuria txiki ikusten dut, hainbat gauza jartzeko, a zer gauzak! Begiak itxi eta euria, ibaia ura eta ura besterik ez dut ikusten, eta begiak irekitzean ere gauza bera ikusten dut, bota eta bota, atertu gabe ari du.

Nola aldatzen diren gauzak kamarada, zioen abestiak, eta ikusi bestela, lehor zegoela dena eta hori, eta honek kalteak eta kalteak ekarri ditu, eta denok duela urte batzuk pasatakoa, berriro bizitu genuen igandean.

Igande eguerdian semea eta alabarekin Santueneako zubira joan ginen, aterkiak autoan utzi eta euripean ibaia ikusten egon ginen, ikusgarria da, zer indarra hartzen duen urak. Beldurra ere sentitu nuen, oraindik marea gora iristeko hiru bat ordu falta baitziren.

Eta orduak pasa ahala, ura gora eta gora, gainera oso denbora laburrean asko igo zen, eta gure auzoko ibai ondoko etxeak urez inguratutik geratu ziren, noski baratzak, baita oiloak, untxiak, baita idiak ere eraman zituen ibaiak. Jakingo duzueenez, sagardotegia erabat ur azpian parte handi bat, desastrea!

## KALEZAR

INMA BALDA

## (H)azaroa, hazila, gorotzila



**B**erdin dio zein termino erabiltzen dugun hilabete luze eta ilun hau izendatzeko. Izenburuan jarritakoak, guztiak baliagarriak zaizkigu. Aspaldiko garaietarako zuzen zuzenak ziren eta oraingo garai berri hauek ezin hobekak direla esango nuke. Era batera edo bestera deitu, Naturak esaten digu zer egin behar udazkeneko egun hauetan: lurrari hazia bota eta gorotza edo simaurra gehituz, negu partean lurrazpiko materia goxatu eta beratu, udaberriko agindua entzun orduko landare berri bat ernaltzeko. Gure baserriarrek ondotxo dakite kontu honetaz guztiaz. Ez dugu, beraz, ezer berririk asmatu behar! Naturak, bere perfektioz, erakusten digu bidea: garai berri hauetan bota dezagun Bakearen hazia eta lur-azpian nahastu orain arte sortu den simaurrarekin, gorotz guztiak harturik, bakarren bat ahaztu gabe. Negu partean utz dezagun dena lozorroan, patxadak ematen duen indarra eta arrazoa jaso dezan. Etorriko zaigu Udaberria eta berak ernatuko du kimu berria.

Ai! Zein erraza ematen duen Naturak egiten duenean. Jakingo ote dugu guk, guztiok batera, esku artean daukaguna modu egokian bideratzen? Naturari kasu gehiago egingo bage-nio...



Batzuentzat denbora pasa polita zena, besteentzat zoritxarra zen, ezin ezer egin, begiratu eta itxaron. Zubietako bidea itxita, baina Ingemarreko errepedea ere, eta Txokoaldetik kontu askorekin pasatzea ba omen zegoen, eta autoaren arabera noski.

Orain kalteak zein diren ikusi behar, kalte ekonomikoak, kalte emozionalak... Dena garbitu behar, ze aprobe-txatu, zer bota, seguruari deitu... Egun batzuetarako lana badago, bai. Kaltetu guztiei animo asko eman. Gauza hauek tarteka tarteka gertatzen dira, baina gertatzen direnean...

## KALEBERRI

MADDI ZALDUA

## Euriz blai!



**A**stebukaera latza utzi digu eguraldiak. Bagenekien eguraldi txarra izango genuela, baina inork ez genuen gertatutakoa espero. Larunbatean, eguraldiak berak ere, parrandarako gogoia kendu eta etxera joateko nahia piztu zidan. Igandean, 11:00ak aldera deitu ninduen amak. Lo harrapatu ninduen baina berehala esnatu nintzen esaten ari zitzaidana entzun eta gero. Ibai eta errekek gainezka egiteko zorian zeudela esan eta orduan larritu nintzen. Euriak ez zuen treguarik ematen. Bota eta bota jarraitzen zuen eta nik, geroz eta larrituago ikusten nituen ingurukoak. Badauzkat ibai eta erreka ondoan bizi diren gertukoak, eta haien larritasuna neurea ere bazen momentu haietan. Baina konturatu ginenerako, ezin egin ezer. Denbora laburrean, ibai eta errekek atera baitziren euren bideetatik. Sekulako ur jarioak estali zituen inguruko baratz, zelai eta soroak; aldendu zituen baserrietatik ganadu-buru bat baino gehiago eta zer esanik ez, argirik gabe inkomunikaturik, euren etxeetatik atera ezinik utzi zituen hainbat bizilagun. Harriturik nago oraindik! Bustialdi latza jasan du Usurbilek astebukaera honetan. Urte luzeetan, horrelakorik gertatu ez, eta ea neguak ez digun berriro horrelakorik ekartzen.

AGINAGA

LONTXO ZUBIRIA

## Elizak horrela ez ditu nahi!



**I**a Santu guztien eguna iritsi zen eta hor-  
txe egin dugu topo urtero bezala gure  
hilerrietan. Fede gutxi dugunak eta  
gehiago dutenak, denak elkarren ondoan. Jada  
gure artean ez ditugun senide eta lagunei, urte-  
roko bisita eginez. Difuntuen egun horretan,  
maitasuna eta isiltasuna nagusi izaten dira leku hauetan.  
Landare eta lorez distiratsu egoten dira kanposantuak.

Hala zegoen Aginagakoa ere. Malkoek ere bere tartea dute. Isiltasunean, bakoitzak bere buruan dituen aspaldiko oroitzapenak agertzen dira, momentu goxoak eta ez hain goxoak, joan direnen eta hemen gaudenon artean pasatakoak. Baina joan zirenak joanda daude, zeruan eta infernuan sinestu ala ez, ez du balio tematzea. Horregatik, gogorra egiten zait niri ikustea hortik nola dabilzan zenbait pertsona hemen sufritzen geratu direnen eta hil direnen arteko "zubi-lana egiten".

Hildakoen eta bizien arteko "bitartekaritzan". Sufritzen ari den zenbait pertsonak behar bada kontsueloa aurkituko du horiengan, baina ez dakit nik ez ote diren gehiegi jolasten ari jendearen sentimenduarekin. Nik ez dut nahi behintzat inoren zubi-lanik gure aita zenaren eta bion artean, zubi-lana egiten omen duen horrek berak nahi duen tokira eramanez



nazan. Sinesmen eta eliza kontuekin bukatzeko, ikusten duzuen argazki hau Londresen atera berri dago. Bertako katedral famatu baten aurrean, beren etxeak galdu dituztenak daude kanpinak jarrita. Bertako eliza anglikanoko buruak bertatik bidali egin nahi zituen.

Turisten etorria zapuztu egiten omen dietela, alegia. Hango eliza eta hemengo eliza, Madrilen Rouco Varelak eta hemen Munilla gotzaiak gidatzen duten eliza, antzekoak ikusten ditut nik. Krisiak denok behartuko gaitu aldatzera, eta eliza kristauak ere badaukate aldaketaren premia.

ATXEGALDE

AINARA ARNAIZ

## Ura han eta hemen



**U**dazkena lehorra omen zihoan,  
eta hara urte garai honetako  
lehen euriteek zer nolako pano-  
rama utzi diguten. Euri zaparrada mardu-  
lek, uholdeak ekarri dituzte inguruotara.  
Beldurgarria benetan igande arratsalde eta  
iluntze partean herriko hainbat lekutan bizi zen egoera.

Atxegaldetik Osinalde eta Zumartegi industriaguneak gertu ditugu. Oria ibaiak gainezka egin, eta urak zenbait lantegi harrapatu zituen. Zer esanik ez, erriberak. Auzotik pasatzen den N-634 errepidetik Aginagarako bidean joan besterik ez zegoen ibai ertzak zer egoretaran zeuden ikusteko. Guztia urpean zegoen, ikaragarria. Eta errepidean oso adi gidatu beharra zegoen, mendi aldetik jaisten zen ura tarteko. Bestelako ondorioen artean, udalerriko gainerako lekuetan bezala, ordu batzuez argirik gabe geratu ginen.

Astlehena garbiketa lanei ekin eta kalteak zenbatzen hasteko eguna izan zen. Kalte materialak bai, baina uholdeok zorionez kalte pertsonalik ez dute eragin. Tarte honetatik, euriteok kaltetu zaituzten guztioi animo eta eutsi goiari!

ZUBIETA

DENIS ELORTZA

## Hil ala bizi

**Z**ubieta Lantzenek organoak ematearen inguruko hitzaldia antolatu zuen orain bi aste eta hitzaldira joan ginenok hunkituta atera ginen erakutsi ziguten filmarekin, baita organoak ematea sustatzen ari diren boluntarioen eskuzabaltasunarekin ere. Gainontzekoekin alderatuta Euskal Herrian organo emaile asko gara eta hitzaldian bertan hainbat zubietarrok eskatu genuen organo emailearen txartela. Animatu zu ere, hil ala bizi dagoenak (egunen baten, zuk zeuk) bihotzez eskertuko du.



Hitzalditik atera eta bi zubietarrek aipatu zidaten hil ala biziko egoeran izan zirela orain gutxi Zubietan paseatzen, ehiztarien tiroak ia hanka-tartean sumatu zituztenean. Ez dakit legez biziguneetatik hain gertu ehizan aritzea galarazita ote dagoen baina gizalegeak hori agintzen du. Hala bizi.

Hil ala bizi ez baina larri, oso larri ibili dira hainbat zubietar, asteburuko eurite historikoak eragindako uholde eta triskantzekin: batzuen etxea uharte; besteen baratza ibaiaren atsedenek; etxe berrietako batek estalitako errekastoko urak ate-joka, irteera bila; zenbait kotxe ederki beratuta... Kaltetu guztioi, animo!

## Ipuin eta antzezlan ugari egunotarako

**H**aurrei zuzenduriko ipuin kontaketa eta antzezlan saio desberdinak iragarri dira egunotarako. Lau guztira, Kaxkoan, Zubietan edota Santuenean. Hona hemen, deituak dauden hitzorduak.

### “Ipuinez josita”, ostiral honetan Zubietan

Marisa Tabertero ipuin kontalaria Zubietara gerturatuko da ostiral honetan, azaroaren 11n. Adin guztietako haurrei zuzenduriko “Ipuinez josita” izeneko emanaldia eskainiko du Kaxkapen, arratsaldeko 17:00etan hasita. Zubietan Lantzenek antolatu eta Usurbilgo Udalak lagundu du saioa.

### “Bi azeri estu eta larri”, ostiralean Santuenean

Patata Tropikala antzerki taldea dator Santueneko frontoi berrira, ostiral honetan, azaroaren 11n. “Bi azeri estu eta larri” antzezlan eskainiko dute, arratsaldeko 17:30etatik aurrera. Santuenea Elkarteak eta Kutzak antolaturiko ekitaldia 3-9 urte arteko haurrei zuzendua egongo da. Sarrera doan.

### Datorren astean, Bikelmi taldea Sutegin

Ipuin kontaketa saio berri bat antolatu du Usurbilgo Udalak azaroaren 16rako. Oraingoan ordea, arratsaldeko 18:00etan Sutegi udal liburutegian hasiko den ekitaldia antzerkiarekin uztartuko da. Bikelmi taldearen eskutik, emanaldian “magia eginez giza baloreak eta ingurumenarekiko begirunea transmititzen dituzte”. Saioa sei urtetik gorakoei zuzendua egongo da.



PATATA TROPIKALA TALDEKOAK SANTUENEAN ARITUKO DIRA OSTIRALEAN.

### Azaroaren 20an,

### “Ipuinaren bila” Sutegin


Familiarteko ikuslegoari zuzendua dago, Txalo Produzioak taldekoek azaroaren 20an 17:00etatik aurrera Sutegin eskainiko duten “Ipuinaren bila” izeneko antzezlan.

#### 4-12 urtekoentzat

4-12 urte arteko haurrei zuzendua, abenturak bizi asmoz, bi aktoreek ipuinen mundua zeharkatzen dute motor ikusezin batean, kontatuak izan daitezten gauza berriak bilatzeko. Usurbilgo Udalak antolatu eta Eskenarekin batera Eusko Jaurlaritzak antolaturiko ekitaldirako sarrerak aldeztuak dira. Oiarde Kiroldetxean. Edo egunetan bertan, 4 euroren truke.

### Udazkena heldu da...

Udazkenean gaudela eta, begira, zein olerki polita ikasiko dugun HH5eko haurrak.




**Javier Orbegozo**  
·ITURGINTZA  
·GASA ·BEROKUNTZA  
**659 602 789**  
Erreka-txiki 13, 3. esk USURBIL 943 37 29 37

**JE JON ELORZA**  
IGELTSERITZA  
OROKORRA  
Obrak eta erreformak  
**661 804 688**  
San Esteban 5, boxua USURBIL jon.elorza@hotmail.com



## Bizikleta irteera igande honetan

**I**gande honetan irteera antolatu dute Zubietako txirrindulariek. Zubietan Lantzenetik bidali diguten oharrean diotenez, “mendiko bizikleta hartu eta gure inguruan buelta bat emango dugu 2 edo 3 ordutakoa”.

Igande eguerdian, bizikleta buelta osatu ondoren, bazkaria egingo dute Joko-Garbi elkartearen. Izena emateko e-mail bat bidali behar da helbide honetara: [m.berasategi@telefonica.net](mailto:m.berasategi@telefonica.net)

### In-line patinaje ikastaroa Zubietan

In-line patinaje ikastaroa antolatu du Zubietan Lantzenek. Gaztetxoek zuzendutakoa izango da honakoan. Bi egunez luzatuko da ikastaroa.

**Noiz:** azaroaren 19an eta 20an.



ZUBIETAKO TXIRRINDULARI TALDEA, AURRETIK EGINDAKO IRTEERA BATEAN.

**Ordutegia:** 11:00-13:00

**Non:** Zubietako frontoi estalian.

**Norentzat:** 6 eta 14 urte bitarteko umeentzat.

**Prezioa:** 10 euro.

**Oharra:** Gehienez ere 15 umerentzako lekua dago eta, horrenbestez, azkar ibili eta eman izena telefono honetan: 660 779 160.

### Karlos Martin kartzelan sartu dute

**1**08 eguneko espetxe zigorra bete-tzeko Martuteneko kartzelan sartu dute Karlos Martin herritarra. Azaroaren 1ean bere kabuz Antiguako komisaldegian aurkeztea erabaki zuen eta senitartekoez denbora batean bere berri izan gabe egon ostean, telefonoz Martinekin hitz eginda espetxeratu zutela jakin zuten. Behin behineko askatasun egoeran zegoen, baina berriki espetxeratzeko agindua jaso zuen. Usurbileginez.com web orrialdeak berri eman duenez, “bere aurka bilatze eta atxilotze agindua zegoela jakinarazi zioten, epaitegian aurkezteko aginduarekin batera”.

2003ko urriaren 8an atxilotu zuten Karlos Martin, sarekada baten baitan. Atxiloaldian tratatu txarrak jaso zituela salatzen.

**PUBLIERREPORTAIA** · **USURBILTZEN**

**Trukalariak**



Usurbil Zero Zabor



ALKARTASUNA



Usurbil



Usurbilgo Udala

## Ikastaroak eta irteerak

**A**zken hilabeteetan ikastaro eta irteera ugari antolatu ditugu Usurbiltzen taldean eta aurrera begira asmo horretan dihardugu. Irteeren bidez baserritarrengana hurbildu nahi da, beraiek egiten duten lana gertutik ezagutu eta baloratzen asmoz.

Datozen asteetan honako bisita hauek egin nahi dira:

**Errioxako upategi ekologiko batetara.** Lana nola egiten duten ikusi, upategi ekologiko eta konbentzionalen arteko ezberdintasunak aztertu eta ardo ekologikoa, dastatu, egun eder bat pasatz.

**Fermineneko oilategi** berriak ikustera. Oilotegi zaharrera bixita egin genuen joan den udazkenean, orain instalazio berriak eta egindako lana ikustera joan nahi dugu.

Ikastaroak berriz eskaeraren araberako antolatzen dira. Hala nola, orain aste batzuk 4. aldiz egin da **ogigintzako ikastaroa**. Bertan Juantxok eta Tebak, ama orearekin etxean ogia nola egin erakutsi digu-



AGERIALDEN, IKASTARO BAT JASOTZEN.

te. **Kontserba ikastaroa** berriz irailearen bukaeran egin zen, garaiko barazki eta frutak nola kontserbatu ikasteko teoria eta praktika egiteko aukera izan da Biourkizuko Amaiaren eskutik.

Datozen hilabeteetan egiteko asmoa diren ikastaroak; **xaboigintza, hiriko baratza, sukaldaritza eta sendabelarren** ikastaroak dira.

Sendabelarren ikastaroa ia antolatu zen lehengo aldiz. Ikastaroaren arrakasta eta berria

egiteko eskaera ikusiz, berriz antolatuko da. Urtarrila erdialdean hasi eta ekaina erdialderarte izango da larunbata goizetan. Laura Gurbindo sendabelarretan adituaren eskutik, teoriak gain, sendabelarrek identifikatzeko irteerak, herbario bat eginez eta sendabelarrek produktu desberdinak prestatuko dira; ukendu, xaboi, hortzetako pasta, xarabe, olio etab.

Informazioa: [usurbiltzen@gmail.com](mailto:usurbiltzen@gmail.com)

## Aurretik harrapatutako guztia eramán zuen urak

**O**rduak aurrera egin ahala, egoerak okerrera egin zuen igandean, nabarmen gainera, bazkalosteko itsasgorarekin batera. Arratsalde eta iluntze partean irudi ikusgarriak utzi zizkiguten euriteek. Ingemar eta Atallu inguruak urpean ziren eta ondorioz, Kaxkotik Santuenerako bidea moztuta geratu zen eta astelehen goizean ireki zuten udal langileek. Kalte materialak handiak izan ziren erribera ondoko txabola, baratze eta baserri askotan.

Bizkarre baserriko hainbat idi eramán zituen urak. Bat Santuenean agertu zen, bestea Zubietan atera behar izan zuten, Aialde Berri sagardotegitik hain zuzen. Eta hirugarren bat Txokoalde partean atera zen, bere kabuz. Aginagarako bidea hartu zuen eta Ertzaintza atzetik, gauza handirik egin ezinik. Baina beste idi batzuk urak irentsi zituen.

Iñaki Salsamendiren argazki hauetan ikus daitekeenez, bi idi ageri dira uretatik atera nahian.



BIZKARRE BASERRIKO IDIAK, URETAN.

### Azaroak 6 igandea



### Azaroak 7 astelehena



ORRIALDE HONETAKO ARGAZKIAK: IÑAKI SALSAMENDI.

## Erriberak garbitzeko auzolan deialdia

**A**steburuko euri jasak hainbat kalte eragin ditu Usurbilgo herrian. Oria ibaiaren ertzetako eremuak garbitzeko auzolanaren deialdia egitea beharrezkoa ikusi du Udalak.

Datorren larunbatean, azaroak 12, goizeko 8:00etan, "4 puntu hauetan

erriberan geratu diren plastiko, egur eta zakar handiak biltzera gonbidatzen zaituztegu", dio Udalaren prentsa-oharrrak.

Udalaren Zerbitzuak ere bertan izango dira lanak modurik koordinatuenean egin ahal izateko:

-Zubietan: frontoian.

-Atallun: bilketako emergentzi

puntuak.

-Txokoalden: Aparkalekuan.

-Aginagan: Frontoian.

Arropa egokiaz prestatuta joatea eskatzen da; besteak beste, eskularruak eta oinetako aproposalak. Eskaera berezia egiten die udalak traktore txikiak dituzten herritarrei, bertara eramateko.



SANTUENEA INKOMUNIKATUTA GERATU ZEN. AIALDE BERRIN KALTEAK HANDIAK IZAN ZIREN (ARGAZKIAK, DJ LARRA).

**EAJ PNV**

**EUSKADIREN ALDE**

JOSU ERKOREKA

ARANTXA TAPIA

www.eaj-pnv.eu

## Argazki eta bideo gehiago noaua.com web orrian


**I**berdrolak Zubietan duen sub-estazioa kaltetu egin zuen igandeko ur-jasak. Argia joan egin zen hainbat tokitan eta biharamunen ere, argirik gabe zeuden hainbat zonalde. Kaxkoan, esate baterako, joan eta etorri, etorri eta joan ibili zen argia. Astelehenean, iluntzean hasi zen egoera normaltzen.

Baina ez zen Usurbilgoa kasu bakarra izan. Gure web orria Andoaingo

enpresa batean dago ostataturik. Igandetik astelehen goizera argindarrik gabe izan ziren eta, ondorioz, gure posta helbideak eta noaua.com web orria etenda egon ziren.

### Sare sozialetan ere ikusgai

Hala ere, argazki eta bideoen bitartez segimendua egin genion denboraleari. NOAUA!ko Youtube, Facebook eta Twitter helbideak baliatu genituen gorabeheren berri emateko.



TREN GELTOKIAK IGERILEKU ITXURA HARTU ZUEN (ARGAZKIA MAIDER AZURMENDI).



ASTELEHEN GOIZEAN UDAL LANGILEEK SANTUENERAKO BIDEA IREKITZEA LORTU ZUTEN.



ASTELEHEN GOIZEAN URAK HANDITUTA ZETOZTEN DRAINDIK. IRUDIAN, TXOKOALDE.



NOAUA.COM-EN HAINBAT BIDEO JASO DITUGU. IRUDIAN, BABILO- - NIAKOAK GARBIKETA LANETAN.

**HITZALDIA ETA PROIEKZIOA**  
 Xabier Olano eta Garazi Iturralde  
 "KAYAKSURF" azaroak 11,  
 OSTIRALA, 19:30h Sutegi (DOAN)

**MUSIKA** Maite Arroitauregi  
 "MURSEGO" azaroak 13,  
 IGANDEA, 19:00h Sutegi (Sarrerarekin)






**NOAUA!KO KULTURALDIA 2011** 11/11 AZAROA






## Behobia-Donostian izango da Rosa Uribe

**K**irrol jarduera sufrituia izan arren, gustuko du eta igandean erlojua etxean utzita gozatzera doa. Horretarako prestatu baita, ondo pasatzeko, marka hausteak albo batera utzita. Hiru urteko etenaldiaren ostean, eta milaka lasterkariren artean, Rosa Uribe herritarra Behobia-Donostia proban ikusiko dugu azaroaren 13an.

**NOAUA!** Gertu da proba, prest igandeko hitzordurako?

Rosa Uribe. Egin behar dudanerako nahikoa prestatu naiz. Ez noa denbora marka bat egitera, gozatzera baizik. Gustura aritzeko, horretarako nahikoa entrenatu dut.



TXIKITATIK DATORKIO AFIZIOA. 12 URTEREKIN HASI ZEN ATLETISMOAN.

**N. Noiz ekin zenien prestaketa lanei?**

R. U. Urte batzuk utzita nuen, bi urte edo gehiago. Duela hiru urte parte hartu nuen azken aldiz Behobia-Donostian. Denbora tarte honetan ez dut ezer egin. Apirilean astean bizpahirutan entrenatzen hasi nintzen. Uztailan eta abuztuan gutxiagotan aritu nintzen. Eta iraila eta urria jada, astean hirutan.

### JENDE UGARI KORRIKA

“Batez ere iraila erdialdeaz geroztik nabaritu da bai, jende asko dabil”

**N. Zein da zure prestakuntza lekua?**

R. U. Erribera inguruak, Txokoaldeko eta Lasarte alderako bideak.

**N. Mugimendua ibiliko zen asteotan, ezta?**

R. U. Batez ere iraila erdialdeaz geroztik nabaritu da bai, jende asko dabil. Urria bukaeran Lasarteko lasterketa ospatzen denez, bertako jende asko ibil-

tzen da, azken hiru asteetan bereziki. Bestela, urtean zehar korrika eta oinez ibiltzen garenak beti berdinak gara.

**N. Lasterka aritzeko, bakarka edo taldean nahiago?**

R. U. Bakarrik joaten naiz. Astean behin, Idoia Ezeiza eta beste hiru lagun ere joaten dira. Hasieran, eurekin joatera ez nintzen ausartzen, niretzat azkarregi joaten baitira. Baina Baxurde Krossean parte hartu ostean eurekin entrenatzen hasi nintzen. Horiek “egur” pixka bat ematen didate. Bestela bakarrik joaten naiz, neure erritmora.

**N. Nola ikusten dituzu eurak Behobiara begira?**

R. U. Idoia beti oso ondo ibiltzen da, lasterketa herrikoietan eta Behobian azken urteotan oso ondo ibili da. Beste lagunetako batek Maratoirako ere izena emana du.

**Emakumeen arteko pala txapelketan ere ateratzen da**  
N. Lehen aldiz emakumeen arteko pala txapelketa antolatu da herrian. Zer

moduzko esperientzia izan da zuretzat?

R. U. Oso polita. Taldeen artean oso giro ona egon da, ondo pasa dugu eta gogotsu aritu gara. Datorren urteari begira errepikatzekotan pentsatzen ari gara.

### Behobiara joateko autobusa antolatu dute

Igandean Behobia-Donostia proba joateko autobusa antolatu dute, lasterkariak proba hasiko den lekura eramateko. Goizeko 9:00etan Bordatxo paretik irtengo da eta lasterketa amaitu ondoren, Donostiatik Usurbila itzultzeko. 666 987 083.

### Usurbil FTren oharra

Caja Rural-Ipar Kutxaren sukurtsalean “Socio Usurbil FT K/K-n” 20 euro ingresatu eta izena eta bi abizenak adierazi. Haraneko tabernan ordainagiria aurkeztuz gero elkarrekin ondo erregistratu du eta dagokion oparia banatuko du.

**LAUKOTE**  
okindegia  
kafeteria  
LAUKOTE  
Puntapax 16, behea 943 360 980

**ANTXETA**  
taberna-jatetxea  
eguneko menuak  
ogitartekoak  
plater konbinatuak  
Eguzkitza, 4 • tel: 943 37 03 44
